

ANALISIA



"Ez dugu konplize izan nahi". Greenpeace taldearen salaketa Bilboko Portuan.

Ongi etorri armak, refugees go home!



Axier Lopez
@axierL

Bilboko Portuaren plan estrategikoaren onurak hedabidez hedabide azaltzen aritu da Asier Atutxa presidentea. Baina, enpresariak beren enpresez hitz egitean ohikoa duten autobonboaz aparte, bi galdera 'deseroso' erantzun behar izan ditu. Bata, errefuxiatuak portura ez sartzeko eraikitzen ari diren harresiari buruz. Eta bigarrena, martxoan Ignacio Robles suhiltzaile desobedienteak piztu zuen eztabaidaren harira, Saudi Arabia bidean Bilboko Portuan izan diren armaz betetako itsasontziez.

Txanpon beraren bi alde. Batetik, portua bunker bihurtuta, egoera biolentotatik ihesi doazenak baztertzan ari dira; (enpresaren) segurtasunaren izenean. Eta bestetik, Saudi Arabiako diktadurak egoera biolentoak sortzen jarrai dezan ezinbesteko dituen armak esku zabalik hartzen ari dira; (enpresaren) negozioaren izenean.

Erantzunean Atutxak maisuki uztartu ditu multinazionalen bihozgabetasun historikoa eta politikarien pragmatismoa: "Begira, arma trafikoa legezkoa bada, guk lan logistikoa egingo dugu. Asier Atutxak honi buruz duen iritzia ez dut uste inori inporta zaionik".

Alemania nazian negozio itzelak egin zituzten enpresari askok aliatuen epai-

ketetan adierazitako arrazoibide bera erabili du: "Legediaren arabera moldatu naiz negozioa aurrera ateratzeko". Alegia, unean uneko legearen arabera egingakoa ezin dela inoiz delitu izan. Hori argudiatu zutenak zigortzeko mugarri izan ziren epaiketa horiek, hor sortu baitzen justizia trantsizionala -giza eskubideen urraketak konpontzeko neurri politiko eta judizialak-, egun Euskal Herrian egun sarri aipagai duguna.

Jakin nahiko nuke Euskal Herriko edo Espainiako zein legezkoen bidezkoa dela Yemenen aurka Saudi Arabiak abiatu duen gerra. Baina, hori ez da kontua. Israelek palestinarren aurka egin dituen zenbait sarraski legearen aurkakoak direla nazioarteko epaitegiek sarritan ebatzi badute ere, Bilboko Portuak ez dio utzi negozio egiteari sionismoarekin. Adibidez.

Ongi Etorri Errefuxiatuak taldeak salatu duenez, Atutxari legea eta justizia ez direla gauza bera "ahaztu" zaio. Eusko Jaurlaritzak arrazoi politikoengatik aukeratutako pertsona batek uko egin dio edozeinen begitara injustuak diren bi egoera hobetzen laguntzeari. Biolentziaren erabilera, gerra eta errefuxiatuen mundu mailako krisia ere "gureak" dira. Ez da onargarria "barkatu, ez da gure ardura" entzutea Atutxaren moduko botere postu batetik. Gizartearen aurrean irudikatzen baitu pertsonen sufrimendua baino gertukoaren etekina dela kezka bakarra.

EKONOMIAREN TALAIAN

Portuak, bizitzarako ala heriotzarako?



Juan Mari Arregi

Bilboko Portuak bost urterako Plan Estrategikoa aurkeztu berri du. Getxoko kruzeroen kaian egin du, munduko itsasontzi onenetan milaka turista igarotzen diren tokian. Zein da plana? Irakurleek prentsa bidez jakin ahal izan dute. Baina portuko agintariak ez dituzte azaldu milaka lagun biziari -eta heriotzari- eragiten dieten beste alderdi batzuk, nahiz eta portu hori funtsezko tresna izan. Horixe gogoratu zuen Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak, planaren aurkezpen ofizialean, elkarretaraturik.

Portu horretan, baina ez kruzeroen kai elegante eta modernoan baizik eta Zierbenan, atzerriko dozenaka migratzaile saiatu dira azken hila-beteetan ezkututzen polizoi moduan. Batzuek lortu dute. Gehienak harrapatu eta atxilotu egin dituzte. Bilboko Portuak horma bat jaso du migratzaileak itsasontzietan sartzea eragozteko, batez ere Ingalaterra-ra doazenak. Baina portu horretatik jarraitzen dute espertatzen zati batean Euskal Herria ere sorturiko armak. Joan den urtean lehegailuz beteriko hirurehun edukiontzi garraiatu zituzten. Eta arma horiek bidaltzen dituzte herritarrak zapaltzen dituzten eta Europarako migrazioa sorrarazten duten gerretan dabilzan herrialdeetara. Euskal Herrira etorritako migratzaileek, polizoi moduan ihesean dabilzananak, herrialde gatazkatsua horietakoak dira hain zuzen. Euroganberaren debekuari muzin eginez, euskal portu honetatik armak ateratzen segitzen dugu, Saudi Arabia bezalako herrialdeetara ere bai.

Bilboko Portuak kasu egin behar-ko lioke plataforma horri, eskatzen duenean "migratzaileen eskubideek eta askatasunak garrantzi gehiago izango duten etorkizun bat, konpainia handien interes ekonomikoek eta gerraren negoziok baino".